

AZPko LAN-POLTSAK. - HOBESPENAK ZEHAZTEKO EPEA.

Hautaketa prozesuak gainditu eta gero, AZPkoen lan poltsetan sartzen diren pertsonak, 2017ko uztailaren 18ko, lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzko akordioaren 8. Artikuluan adierazitako eskaintzetarako hobespenak zehazteko Lan-eskaintzen atarian aukera izango dute.

AKORDIOA, 2017ko UZTAILAREN 18koa, LAN POLTSAK ERATZEARI ETA KUDEATZEARI ETA LAN POLTSETAKO KIDEAK ORDENATZEARI BURUZKOA

8. artikulua.– Hobespenak zehaztea.

8.1.– Akordio honen eraginpeko pertsonak urtero zehaztu ahal izango dituzte, gerentearen erabakiaren bidez horretarako ezarriko den prozedurarekin bat eta bertan adierazitako diren epeen barruan, lan eskaintzetarako lehenetsi nahi dituzten aukerak. Zehaztu ahal izango dituzten elementuak dira lurralde esparrua, eskaintzaren iraupena, lanaldi mota edo Eibarren lan egiteko aukera, betiere, artikulua honetan adierazitako baldintzetan. Ezer zehazten ez duten pertsonak lanerako moduan agertuko dira orain arte lanerako moduan egon diren lurralde berberetan, edo- zein iraupenetako eskaintzak jasoko dituzte, eta ez dute lanaldi partzialeko edo arratsaldeko lanaldiko eskaintzarik jasoko, ezta Eibarren lan egiteko eskaintzarik ere. Urte jakin batean zehaztutako aukerak hurrengo urtetarako mantenduko dira, interesdunak berak ez baditu aldatzen urtero horretarako ezarriko den epearen barruan.

Lan poltsetarako hautaketa prozesuak gainditu dituzten pertsonak, lan eskaintzetarako hobespenak zehazteko epea itxi ondoren sartzen badira lan poltsetan, kasuan kasuko lan poltsan sartzerakoan zehaztu ahal izango dituzte aukerok indarreko urterako.

8.2.– Lurralde esparrua zehaztea. Akordio honen eraginpeko pertsonak lanean jarraituko dute orain arte lanean egon diren lurralde berberetan edo lan eskaintzak jasoko dituzte orain arte eskaintzak jaso dituzten diren lurralde berberetarako (kasu bakoitzerako lurralde esparruari buruzko xehetasunak akordio honen 1. eta 2. eranskinetan jaso dira). Hala ere, pertsona horiek lurralde esparrua murriztu ahal izango dute, hala badagokie, eta campus bakarrean edo bi campusetan lanerako moduan egon nahi duten adierazi ahal izango dute. Lurralde esparrua zehaztu ondoren, esparru hori bakarra izango da eta esparru oso bat balitz bezala funtzionatuko du. Horrela, bada, campus baterako jasotako lan eskaintzari uko egiteak aukeratutako esparru guztirako ondorioak sortuko ditu.

Akordio hau onartzen denetik aurrera, urtean behin aldatu ahal izango dira lurralde aukerak, baina ezingo dira inola ere 1. eta 2. eranskinetan jasotakoak (abiapuntukoak) baino zabalagoak izan.

8.3.– Eskaintzaren iraupenarekin lotutako aukerak zehaztea. Lan poltsetako kideek urtero zehaztu ahal izango dute zein iraupenetako eskaintzak jaso nahi dituzten, horretarako ezarritako epearen barruan. Aukerak honako hauek izango dira:

a) Edozein iraupenetako eskaintzak jasotzeko moduan egotea: lan eskaintzak jasoko dituzte, kontratuaren edo izendapenaren iraupena gorabehera.

b) Soilik iraupen luzeko eskaintzak jasotzeko moduan egotea: sei hilabetetik gorako zerbitzuak emateko eskaintzak baino ez zaizkie egingo.

8.4.- Lanaldi motarekin edo Eibarren lan egitearekin lotutako aukerak zehaztea. Lan poltsetako kideek urtero aukeratu ahal izango dute jarraian adierazten diren eskaintza moten artetik zeinetarako jaso nahi dituzten deiak (mota guztiak ere aukeratu ahal izango dituzte), horretarako ezarritako epearen barruan. Aukerak honako hauek izango dira:

- lanaldi partzialeko eskaintzak.
- arratsaldeko lanaldiko eskaintzak.
- Eibarren lan egiteko eskaintzak.

Era horretako premiei erantzun behar zaienean, halakoetan interesa duten pertsonen deituko zaie zuzenean, lan poltsan duten hurrenkeraren arabera. Eskaintza horiek nahitaez onartu beharko dira.

8.5.- Eskaintzaren iraupenarekin eta lanaldi motarekin lotutako aukerak zehazterakoan posible diren konbinazio guztiak egin daitezke eta konbinazio horiek desberdinak izan daitezke campusetan arabera. Horrela, bada, adibide bat jartzearren: hiru campusetan lanerako moduan dagoen pertsona batek edozein iraupenetako lan eskaintzak jaso nahi dituela zehaztu ahal izango du, eta lanaldi partzialeko eta/edo arratsaldeko lanaldiko eskaintzak jaso nahi dituela, Bizkaiko Campusean; eta, bestalde, aldi berean, Araba eta Gipuzkoako campusetan iraupen luzeko eskaintzak baino jaso nahi ez dituela zehaztu ahal izango du.

8.6 .- Nahitaez onartu beharko dira pertsona batek bere interesen arabera zehaztutako aukerekin bat datozen eskaintza guztiak, edo 8.1 artikulua arabera ezer zehazten ez dutenei ezartzen zaizkien aukerekin bat datozen guztiak.

8.7 .- Lanaldi partzialean, arratsaldez edo Eibarren lan egiteko eskaintzak, kontrakorik adierazi ezean egiten ez direnak, urtero hobespenak zehazteko ezarritako den epearen barruan aukera horiek lehenetsi dituzten pertsonen deituko zaizkie lehenengo, eta, ondoren, lan poltsako gainerako kideei. Azken kasu horietan, eskaintza onartzea borondatezkoa izango da. Borondatez onar daitezkeen eskaintza horiei uko egiten dieten pertsonen deituko zaie beste eskaintzarik jasoko, horrelakoak jaso nahi dituztela adierazten ez duten artean. Nahi hori urtero hobespenak zehazteko ezarritako den epe berean adierazi beharko dute.

AZPko LAN-POLTSETAN HOBESPENAK ZEHAZTEKO GIDA

1 Identifikazio orrialdean sartuko gara.



UPV/EHUko Lan-eskaintzen Ataria

Orri honetatik on line bidez izena eman ahal izango duzu UPV/EHUko hautaketa-prozesuetan (LEP eta lan-poltsak), bai eta egin dituzun eskabideak kontsultatu ere. Horretarako zure erabiltzailea (NAN/ IFZ/ pasaporte) eta pasahitza idatzi behar dituzu.

Ez baduzu "Pasahitza" gogoratzen, berriz ezar dezakezu "Pasahitza ahaztu dut" sakatuta, eta mezu bat bidaliko zaizu erregistroa egiterakoan eman zenuen helbide elektronikora, pasahitz berriarekin. Heltzen ez bada, again helbide elektronikoa aldatu da, eta kaso honetan Hautaketa eta Hornikuntzara deitu behar duzu behena aipatzen diren telefonoetara helbide elektronikoa gaurkotzeko.

Aurrez erregistratu ez bazara, erabiltzaile berria sortuko dugu alta egiteko pantailan agertzen diren datu pertsonal guztiekin



Lan-eskaintzen Atarian erregistratzea

Sartu beharrezko datuak eta egin klik **Datuak bidali** Asteriskodun laukiak bete behar dituzu derrigor

Datu pertsonalak	Helbidea
* Izena	* Kale-mota
* 1. abizena	* Kalearen izena
* 2. abizena	* Zenbakia
* Identifikazio-dokumentu mota	Solairua
* Dokumentu-zk.	Atea/Aldea
* Jaiotze-data:	* Herraldea
* Herraldea	* Erkidetza
Sexua	* Probintzia
<i>(estatistketarako bakarrik)</i>	* Udalerria
Telefonoa	
* Telefonoa	
Posta elektronikoa	Pasahitza sortu eta egiaztatzea
* Posta elektronikoa	Gogoratu behar dituzu hasierako erregistro honetan jarritako identifikazio-zenbakia eta pasahitza; izan ere, Lan-eskaintzen Atarira sartzen zaren guztietan eskatuko zaizkizu.
	* Pasahitza
	* Baieztatu pasahitza

Datu pertsonalen babesari buruzko 1abenduaren 13ko 5/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua betetzeko, "Hautaketa eta lanpostuak betetzea" fitxero bat dagoela jakinarazten dizugu. Bertan formulario honen datuak sartuko dira unibertsitateko hautaketa-prozesuetarako eta langostean bidezko gestioarako.
Fitxategiaren arduraduna UPVEHU da, eta harengana jo beharko duzu legeraren babesean datuak ikusi, aldatu, ezabatu edo ezadostasuna adierazi nahi izanez gero. Helbidea: DBLO-UPV/EHUko- Errektoregoko eraikina - Leioako campusa -48940 Leioa.

Erregistroa egin eta gero, edo erregistratuak bagaude ondoko pantailan sartuko gara.

AZPko LAN-POLTSETAN HOBESPENAK ZEHAZTEKO GIDA

UPV/EHUko Lan-eskaintzen Ataria

Eskari berria | Zure eskariak | Zure datu pertsonalak | Aldatu pasahitza | Irakasleak Kontsulta | Baja eman | Irten

Atal honetan UPV/EHUren lan-eskaintzen deialdiak ikusi ahal izango dituzu eta, eskariak aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean, izena eman ahal izango duzu zure interesekoetan. Kontuan izan eskariak bidali ondoren ezin direla aldatu.

Eskari berria

Atal honetan UPV/EHUren lan-eskaintzen deialdietan parte hartzeko egin dituzun eskariak kontsultatu ahal izango dituzu.

Zure eskariak

Atal honetan UPV/EHUK zutaz eta Lan-eskaintzen Atariari lotuta duen informazioa kontsultatu ahal izango duzu, bai eta helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa aldatu ere. Kontuan izan, aldaketa egin duzunik aurrera, izena emandako prozesu guztiei buruzko komunikazioak edo eta jakinarazpenak helbide, telefono edo posta elektronikora helduko zaizkizula, besterik adierazten baduzu. Egiaztatutako hizkuntza-eskakizun eta titulazio-taldeari buruzko datuak ere aldatu ahal izango dituzu. Orria aldatu aurretik, egiaztatu ondo gorde dituzula datu berriak. Zalantzarik izanez gero, egin klik "Kontsultak" estekan.

Zure datu pertsonalak

1 Zure datuak behin sartuta, joan "Zure eskariak" atalera.

Izena emanda dugun deialdi ireki guztiak agertuko dira eta, beheko aldean, parte hartzen dugun lan poltsak.

UPV/EHUko Lan-eskaintzen Ataria

Eskari berria | Zure eskariak | Zure datu pertsonalak | Aldatu pasahitza | Irakasleak Kontsulta | Baja eman | Irten

Zure eskariak

Atal honetan UPV/EHUren lan-eskaintzen deialdietan parte hartzeko egin dituzun eskariak kontsultatu ahal izango dituzu.

Halaber, Ordainketa Sistemara sartu edo dagokion ordainagiria inprimatu ahal izango duzu tasa ordaintzeko, beti ere eskariak aurkezteko epea irekita badago.



Eskari berria atalera joan zaitezke UPV/EHUK irekita dituen deialdiak kontsultatzeko

Deialdia	Hautaketa-prozesua	Eskariak aurkezteko epea	Puntuazioa kontsultatu
2018ko LAN POLTSAK	Gestio-Teknikariak (Zuzenbidea)	2018-01-29 -> 2018-02-09	→
2018ko LAN POLTSAK	Irakaskuntza eta Ikerketarako Laguntzako erdi mailako teknikaria (Kimika)	2018-01-29 -> 2018-02-09	→
2018ko LAN POLTSAK	Teknikari Espezialista (Kimika)	2018-01-29 -> 2018-02-09	→
2018ko LAN POLTSAK	ARTXIBO-, BIBLIOTEKA ETA MUSEOETAKO LAGUNTZAILEAK	2018-01-29 -> 2018-02-09	→
2018ko LAN POLTSAK	ADMINISTRARIAK	2018-01-29 -> 2018-02-09	→
2017ko LAN POLTSAK	Mantentze Lanetako eta Produktzioarako Zerbitzuetako teknikari espezialista (III. Taldea)	2017-06-12 -> 2017-06-21	→
2017ko LAN POLTSAK	Arte eta Gorputz Adierazpeneko teknikari laguntzailea (IV. Taldea)	2017-06-12 -> 2017-06-21	→

Deialdia	Hautaketa-prozesua	Kontsulta campuska	Hobespenak
AZP Lan Poltsak	Gestioko Teknikaria (Zuzenbidean Liz.)	[Aukeratzea] v	
AZP Lan Poltsak	Gestioko Teknikaria (Orokorra)	[Aukeratzea] v	

"Hobespenak" atalean menu zabalgarri bat ikusiko dugu, eta bertan aukeratuko dugu campusa (Bizkaia, Araba edo Gipuzkoa). Hori eginda, orri bat irekiko da, nahi ditugun aukerak marka ditzagun.

AZPko LAN-POLTSETAN HOBESPENAK ZEHAZTEKO GIDA

 	UPV/EHUko Lan-eskaintzen ataria
Arabako campusa <input type="checkbox"/> Ez dut ezelango eskaintzarik hartu nahi campus honetarako. <input type="checkbox"/> Campus honetarako eskaintzak hartu nahi ditut, baina hemen adierazitako hobespeneen arabera: Hobespena eskaintzaren iraupenerako <input type="checkbox"/> Berdin zait zenbatekoa den eskaintzaren iraupena <input type="checkbox"/> Epe luzerako eskaintzak baino ez ditut nahi Hobespena lanaldi motarako Lanaldi osorako, ordutegi normalizaturako eta goizeko ordutegirako eskaintzak hartu nahi ditut, eta horiez gain, beste hauetarako: <input type="checkbox"/> Arratsaldeko ordutegia baino ez daukaten eskaintzak <input type="checkbox"/> Lanaldi partziala daukaten eskaintzak.	Baldintzak hobetzeko eskaintzak <input type="checkbox"/> Campus honetara etortzeko eskaintzak <input type="checkbox"/> Arratsaldeko lanalditik normalizatura edo gotzekora pasatzek
Bizkaiko campusa <input type="checkbox"/> Ez dut ezelango eskaintzarik hartu nahi campus honetarako. <input type="checkbox"/> Campus honetarako eskaintzak hartu nahi ditut, baina hemen adierazitako hobespeneen arabera: <input type="checkbox"/> Berdin zait zenbatekoa den eskaintzaren iraupena <input type="checkbox"/> Epe luzerako eskaintzak baino ez ditut nahi Hobespena lanaldi motarako Lanaldi osorako, ordutegi normalizaturako eta goizeko ordutegirako eskaintzak hartu nahi ditut, eta horiez gain, beste hauetarako: <input type="checkbox"/> Arratsaldeko ordutegia baino ez daukaten eskaintzak <input type="checkbox"/> Lanaldi partziala daukaten eskaintzak.	Baldintzak hobetzeko eskaintzak <input type="checkbox"/> Campus honetara etortzeko eskaintzak <input type="checkbox"/> Arratsaldeko lanalditik normalizatura edo gotzekora pasatzek
Gipuzkoako campusa <input type="checkbox"/> Ez dut ezelango eskaintzarik hartu nahi campus honetarako. <input type="checkbox"/> Campus honetarako eskaintzak hartu nahi ditut, baina hemen adierazitako hobespeneen arabera: <input type="checkbox"/> Berdin zait zenbatekoa den eskaintzaren iraupena <input type="checkbox"/> Epe luzerako eskaintzak baino ez ditut nahi Hobespena lanaldi motarako Lanaldi osorako, ordutegi normalizaturako eta goizeko ordutegirako eskaintzak hartu nahi ditut, eta horiez gain, beste hauetarako: <input type="checkbox"/> Arratsaldeko ordutegia baino ez daukaten eskaintzak <input type="checkbox"/> Lanaldi partziala daukaten eskaintzak. Hobespena lanaldi Eibar <input type="checkbox"/> Eibarren lan egiteko eskaintzak	Baldintzak hobetzeko eskaintzak <input type="checkbox"/> Campus honetara etortzeko eskaintzak <input type="checkbox"/> Arratsaldeko lanalditik normalizatura edo gotzekora pasatzek

Aukeraketa Campus bakoitzean egingo dugu..

Kontsulta campuska lan-poltsan posizioa, duakagun Hizkuntz eskakizuna, eta aukeratutako hobezpenak kontsultatu dezakegu. Hauek, urtero alda daitezke.

- **Informazio gehigarria**

AZPkoen Hautaketa eta Hornikuntzako telefono hauetan lor daiteke:

- 946012293
- 946015044
- 946015045

AZPko LAN-POLTSETAN HOBESPENAK ZEHAZTEKO GIDA

- Datu Pertsonalak Babestea

INFORMAZIO OHARRA: LANGILEAK HAUTATZEKO ETA LANPOSTUAK BETETZEKO PROZESUETAKO DATUEN TRATAMENDUA - ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak apirilaren 27an emandako 2016/679 EB Erreklamenduko 13. artikularekin bat etorrita (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko erreklamendua), honen bidez jakinarazi nahi dizut zure datuak UPV/EHUren erantzukizunpeko fitxategian gordeko direla, eta, era berean, honen berri ere eman nahi dizut:

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa	
Datu tratamenduaren arduraduna	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Datu tratamenduaren helburua	Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen arloan unibertsitateak langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko egiten dituen prozesuak gestionatzea.
Datu tratamenduaren legitimazioa	Datuen tratamendua beharrezkoa da Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen arloan langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko egiten dituen prozesuak egiteko, guztia bat etorrita prozesu horietan ezarri beharreko legediarekin. Era berean, prozesu horiek gauzatzeko unibertsitateari emandako botere publikoak egikaritzea dakar. Era berean, datuak beste erakunde publiko batzuei laga ahal izango dizkiogu, betiere, lankidetzan aritzeko eta aipatutako helburu berberekin tratatzeko.
HARTZAILEAK	Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legeak agindu ezean.
Eskubideak	Datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko; bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen denez.
Informazio gehiago	http://www.ehu.es/babestu

Datuen babesari buruzko informazio osagarria

Arduraduna

Zure datu tratamenduaren arduraduna:

- Identitatea: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea IFK: Q4818001B
- Posta helbidea: Sarriena auzoa z/g. 48940 Leioa - Bizkaia
- Web orria: www.ehu.es
- Datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak: dpd@ehu.es

Helburua

Zein helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Datuen tratamenduaren helburua da Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen arloan unibertsitateak langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko egiten dituen prozesuak gestionatzea.

Zenbat denbora gordeko ditugu zure datuak?

Datuak gordeko ditugu zuk ezabatzeko eskatu arte eta, edozelan ere, errekurtsorako edo/eta erreklamaziorako epeak irekita dauden bitartean edo datu horiek eskatzeko oinarri izan ziren

AZPko LAN-POLTSETAN HOBESPENAK ZEHAZTEKO GIDA

helburuek bere horretan jarraitzen duten bitartean.

Datu pertsonalak

Zein kategoriatako datuak tratatzen ditugu?

Honako kategorietako datuak tratatzen ditugu:

- Identifikaziorako datuak: NAN/IFK, izen-abizenak, helbidea (posta helbidea eta elektronikoa), telefono zk. eta erregistro pertsonala.
- Lan arloko datuak: lanpostua eta kategoria.
- Datu pertsonalak: jaiotze data, jaiotze lekua, sexua eta nazionalitatea.
- Datu akademiko eta profesionalak: prestakuntza eta tituluak, eta esperientzia profesionala.

Legitimazioa

Zein da zure datuen tratamendurako legitimazioa?

Datuen tratamendua beharrezko da langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko prozesuak egiteko UPV/EHUK daukan lege-eginbearra betetzeko, guztia oinarri hartuta: Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 25. artikulua eta hurrengoak eta 46. artikulua eta hurrengoak; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legeko testu bateratuko 55. artikulua eta hurrengoak, langileak hautatzeko prozesuen kasuan, eta lege bereko 78. artikulua eta hurrengoak lanpostuak betetzeko prozesuen kasuan.

Horregatik guztiagatik, behartuta zaude aipatutako datu pertsonalak ematera.

Era berean, datuak beste erakunde publiko batzuei laga ahal izango dizkiogu, betiere, lankidetzan aritzeko eta aipatutako helburu berberekin tratatzeko, oinarri hartuta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeak 141. artikuluan zehaztutakoa.

Hartzaileak

Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ez zaie hirugarrenei lagako tratamendu honen xede den daturik, legeak agindu ezean.

Eskubideak

Zein eskubide dituzu zure datuak ematean?

Edozein pertsonak dauka eskubidea jakiteko UPV/EHUn bere datu pertsonalak tratatzen ari garen edo ez.

Zure eskubidea da: zure datu pertsonalak atzitzea; datu okerrak zuzentzeko eskatzea, edo ezabatzeko eskatzea, batez ere datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak bildu zirenean zeuden helburuetarako.

Egoera jakin batzuetan, datuen tratamendua mugatzea eskatu ahal izango duzu, eta halakoetan bakar bakarrik gordeko ditugu erreklamazioak egikaritzeko edo aldezteko.

Egoera jakin batzuetan, zure egoera partikularra dela eta, eskubidea izango duzu, edozein unetan, zure datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko. UPV/EHUK datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen arrazoi legitimo larriak daudela tratamenduari eusteko, e do balizko erreklamazioak aldezteko.

Zure eskubideak egikaritzeko, web gunean dituzu eskari orriak:

<http://www.ehu.eus/babestu>

Era berean, informazioa duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren web gunean:

<http://www.avpd.euskadi.eus/s04-5213/eu>